

bidegileak



Lurdes Arrieta (1958-2005)

Azpeitiarra sortzez

Azpeitiarra sortzez, Lantziegon (Araba) egin zuen lan Lurdes Arrietak. Bertako ikastolako lehenengo andereñoa izan zen eta hantxe jardun zuen heriotzak gazterik harrapatu zuen arte. Erbestetik etorria, Lantziegon bertakotu zen. Hantxe ezkondu zen, hantxe hazi zuen familia. Euskararen eta ikastolaren ikur izan zen Arabako Errioxako herrian.

Azpeitian familia ezaguna da Arrieta. Herria handia ere ez eta aspaldidanik elektronika-tresnak saltzen dituzte parte zaharrean duten dendan. Joxe Mari Arrietak ireki zuen negozioa eta bertan jardun zuen bere emazte Juanita



Lurdes Arrieta Azpiazu (1958-2005)

Azpiazurekin. Hiru seme-alaba izan zituzten, Josu, Miren eta Lurdes, Lantziegoko andereño azpeitiarra...

Joxe Mari Arrieta Astigarraga Azpeitian jaio zen, Erdi kaleko etxe batean, eta Orioneko etxe ezagunean bizi, garai bateko tren geltoki ondoan. Lau senide izan ziren, aparte hazi zirenak, amaren heriotza goiztiarra tarteko.



Juanita Azpiazu, gure Lurdesen ama



Joxe Mari Arrieta. Aldizkarian irakurri eta hasi zen irrati muntatzen

Joxe Mari, adibidez, Azkoitiko Zuazola eta Kuatein baserrietan hazi zuten osaba-izebek. Mutil argia izan eta Deustuan egin zituen ikasketak. Soldadutzara, berriz, fotografiak egiten ikasita joan zen eta, soldadu zegoela, Francori ere egin omen zion erretratua, haren aldekoa batere ez izan arren. Soldadutzarekikoak egin eta Azpeitira itzuli zen, aitaren ondora lanean, apretak egiten. Jakin-min handikoa, zer harrapa irakurtzen zuen. Tartean, aparailu elektronikoei buruzko aldizkariak. Handik irakurri eta hasiko zen Joxe Mari irrati muntatzen; ondoren, garbigailua eta, hurrena, igual, irrati, telebista... Lehenengo, aparatua askatu; jarraian, askatu arabera muntatu. Poliki-poliki, espartingintza utzi eta elektronika egingo zuen lanbide erabatekoa.

Joxe Mari Arrietak Juanita Azpiazu Artetxe azkoitiarra egin zuen emaztea. Aldako baserrian zuen jatorria Juanitak, Azkoitiko eliza atariko etxe batean jaio bazen ere. Hamar senide izan ziren. Herriko txapel fabrian egin zuen lan ezkondu arte. Joxe Mari eta Juanitak Azkoitian elkar ezagutu zuten, baina Azpeitira ezkondu ziren. Lehenengo, Santiago kaleko egungo 22 zenbakian. Etxe hartako laugarren solairuan jaio ziren beren hiru seme-alabak. Etxepean, berriz, denda, joan deneko berrogeita hamazazpi bat urtean iraun duen leku berean. Irratiak, lisaburdinak, garbigailuak... urrezko pitxiak, lanparak, jesusen bihotzak, amabirjinak... horiek izan zituen dendan hasiera hartan.



Lurdesen aitaren argazkietako bat, Azkoitian, 1950ean



Arrietatarren elektronika denda Azpeitian

1958. Azpeitia

Hiru umeetan gazteena izan zen Lurdes, 1958ko otsailaren 8an jaioa. Haren anai-arrebak, Josu eta Miren, eta honen senar Julien ditugu berriemaile. «Gurasoak oso sinestunak ziren, eta izenak jartzerakoan ere ez zuten duda handirik izan: lehenengoari, Jesusen izena jarri zioten; besteari, amabirjinarena; hiru-garrenari, Lurdesko amabirjinarena.» Jesus, Maria eta Maria Lurdes. Baina, herriko lagunartean Josu, Miren eta Lurdes izan dituzte beti, euskarazko izenak usu ez ziren garaian. Mirenek argitu digu: «Gure aita niri Miren izena jartzera joan zen. Erretoreak ezetz esan zion. Aitari ez zitzaion askorik gustatu: “Ez dut ba bataiatuko Miren izenarekin ez bada!””. Ia-ia bataiatu gabe geratu nintzen. Gure amarengatik bataiatu nintzela esaten zuen gure aitak. Abertzale ikaragarria zen. Beldurtzekoa. Han zen Agirre lehendakaria lurperatu zutenean. Eta argazkiak ere bazituen, hiletan berak egindakoak. Eta ikurrinen bat edo beste, beti izan zuen han edo hemen ezkutatuta, galarrizita zegoen garaian. Gobernu zibiletik ere



Hiru seme-alabak, Juanita amarekin



Lurdes, etxeko balkoian

pasatu zen». Karitateko mojen ikastetxean, «mixerikordian», ikasi zuten hiru senideek. Lurdesek, 14 urte arte. Gero, lanean hasi beharra zuen, izan etxeko dendan, izan kanpoan. «Dendan, ezta pentsatu ere!» esan eta Azkoitian jardun zuen aldi batez, apreta egiten. Hurrengo lana Lantziegon izan zuen, andereño, 21 urte betetik.

Franco hil ondoko urteak ziren. Euskararen irakaskuntza zabaltzen ari zen lurralde guztietan. Araban zen Lurdesen lagun Blanki Soraluze azpeitiarra. Ikasten eta irakasten. Hark eman zion Lurdesi Lantziegoko berri. Herri txiki batean andereñoa behar zutela. «Eman ezan izena badaezpada!» Izena eman, eta deia jaso. Eta amaren erregua: «Badakit zer pasako zainan: nobioa egingo dun eta ez haiz gehiago etorriko». «Ez, ama, lasai, hiru hilabeterako noa, proba egitera. Hiru hilabeteen gustatzen ez bazait, etorri egingo naiz.» «Ez ezan behintzat hango mutilik egin. Bi alaba eta, hain aparte ez nuke nahi! Ez behintzat hango mutilik egin.» «Ez, ama, zu lasai»...

1974. Araba

Diktaduraren azken urteak ziren. Noiz edo noiz jo behar zuen hondoa erregimenaren ikur gorenak. Eta batean eta bestean pizturik zeuden suak zabaltzen ari ziren gizartean, politikan eta kulturen, hainbat eragileren kontzientzia handia lagun.

Ikastolak, bestalde, etengabe ari ziren hedatzen, garaiko onura ekonomikoaren uberan, irakasleen konpromiso eta militantzia gaitzari esker. Euskal kulturaren berpizkunde aroa zen. Haiek Euskal Herriko lau kornurretan zabaltzearekin batera, gora egin zuen ikastoletako ikasle kopuruak ere. Arazo eta premia berriei erantzuteko asmotan, ikastolek lurraldean lurraldeko federazioetan biltzera jo zuten. 1969an eratu ziren Gipuzkoakoa eta Iparraldekoa (Seaska), eta 1974an, berri, Arabakoa. 1976koa da Nafarroakoa, eta 1977koa, aldiz, Bizkaikoa.



Jose Mari Rekarte, Arabako ikastola askoren eragile nagusi

Arabako ikastola-mintegi horretan euskaraz ez zekien pertsona nabarmendu zen lanean: Jose Mari Rekarte aguraindarra. Haren ondoan, Ramon Basaras larrabetzuarra. Araban, Gasteizko Olabide ikastola besterik ez zen garaiko kontuak dira, Rekartek eta Basarasek berritu dizkigutenak: «1974an Arabako Lautadan ez zegoen Gasteizkoa beste ikastolarik. Aguraindik hurrean, berriz, Olazti eta Altsasu herri ikastoladunak ziren. Kontua da Agurainen hiru-bost urte bitarteko umeak biltzen hasi ginela eta ikastola zabaldu genuela. Haietan lanean jarduteko, irakasleak ez zuen titulaziorik behar. Izatekotan, haurtzaintza agiria. Guk, euskaraz jakitea eta umeak gustatzea eskatzen genuen. Horixe titulazioa!». Aguraingo ikastola hartako lehenengo andereñoa Rekarteren emaztea izan zen, Junkal Olaondo, Behobiakoa. Beste alde batetik, euskaraz zekien beste emakume bat ere ezagutzen zuten Rekartetarrek, Felisa Zabaleta, Nuarbekoa. Hila da. Hark ere andereño jardun zuen Aguraingo ikastolan. Hain zuzen, Felisa Zabaletaren bitartez hurbildu ziren Rekarte eta Basaras Urola ibarrera. «Felisak jende asko ezagutzen zuen Azkoiti-Azpeitietan! Eta, guk esaten genuena: “Non hitz egiten da, erraz, euskaraz?”. Ez genuen bururik nekatu: “erreserbara” jo genuen zuzen. Handik hartu genituen irakasleak. Felisa arduratu zen horretaz. Bateko apaizarekin hitz egin, besteko lagunarekin... Araban jardungo zuten andereñoak inguratu zizkigun.» Era horretara heldu zen Lurdes Arrieta Lantziegora, 1979an.



Lantziegoko ikastola, 1981-82 ikasturteko taldea. Goitik behera eta ezkerretik eskuinera: Rodolfo, Dani, Sara, Cristina, Erika, Lurdes, Rober, Unai, Rakel (?), Gisela, Monse, Emeri eta Sonia

Aguraingo ikastola ireki eta gero zabaldu zituzten Araia eta Dulantzikoak. Gero, Legutianokoa. Ikastolen hedapenari Arabako Errioxak hartu zion lekukoa: Lapuebla de Labarcán eta Oionen ireki zituzten inguruko lehenengo ikastolak; gero, Lantziegokoa eta Bastidakoa etorri ziren. Herritarren balizko kezkak gozatu nahi izan zituzten lehenbizi. «Ez genuen nahi bertakoak “Hemen dira giputzak! Badatoz! Inbasioa!”, oihuka hasterik eta, hori galarazteko, Araba bertako irakasleak lotzea asmatu genuen: Gasteizko irakasle-eskolara jo genuen, artean dena gaztelaniaz erakusten zutenean, eta irakasle titulazioaren jabe egingo zirenei euskara ikastaroak eskaini genizkien, gero Arabako ikastoletan lan egin zezaten, zeren haur hezkuntzan titulazioa



Lurdes, Alizia, Enrike, Juncal, Nekane, Vega...Lantziegoko ikastolaren erreferente urte askoan

beharrezkoa ez bazen ere, orduko Oinarritzko Heziketa Orokorrean derrigorra baitzen irakasle agiria.» Berriz ere Felisa, berriz ere erreserba. Urtebeteko euskara barnetegiak antolatu zituzten Nuarben eta Urrestillan 1980-81 ikasturtean. Baita EGA agiriak jabetzeko uda-ikastaroa ere 1981ean. Arabarrak izan ziren ikasle. Irakasleetan, Pako Sudupe, Iñaki eta Mikel Elustondo anaiak... Azpiegitura-lanetan laguntzaile, Azpeitiko udaleko kultura zinegotzia, Ramon Etxezarreta. Ikasle askoren artean, bertan jardun zuen Lurdes Arrietak, Lantziegon bigarren irakasle urtea egina ordurako.

1979. Lantziego

Lantziegora hurrera ziren orduko, Rekartek eta Basarasek bertako berri jakin zuten. Beraiek heldu aurreko urtean haurtzaindegia abiarazteko asmoa izan zuen herriko emakume batek. Hura bere kasa saiatu zen, sei urtez beherako neska-mutikoak zaintzeko eskaintza eginez, gurasoak lanean ari ziren bitartean. Rekartek eta Basarasek ez zuten aukera galdu, emakume hark egindako zirrikitutik barrena jo zuten. «Guk, lokalen bat bilatu, diru pixka bat non edo nondik inguratu, eta ikastola irekitzeko asmoa hartu genuen.

Gure alde, herrian ez zegoela bestelako hezkuntza zerbitzurik. Bagenekien eskola elebiduna eskainiagatik ere, Lantziegoko gurasoek euskararen kontzientziarik batere ez izanda ere, haurrak ikastolara bidaliko zituztela. Herriak eskola unitario bat izana zuen noiz edo noiz, eta artean han bertan zetzan eraikin zaharra, erori aginean. Gu, lehenengo, apaizari joan gintzaizkion hiru, lau eta bost urte zituzten haurren izenak bildu nahirik. Hori egin eta bilera deia bidali genien gurasoei. Haurtzaintza eskaini genien, herrian bertan eta ele bitan. Zaintza ez ezik, hezkuntza zerbitzua zen helburu. Asmoa onartu eta gero, hurrengo batean etorri zen andereñoaren aurkezpena egitea eta lekua atontzea. Aurreko eskolarena izandako eraikin zaharra konpondu baino lehen, udaletxe zaharrean egon zen ikastola. Lurdes Arrieta, bertako andereño. Urte bat egin zuen han.»

Lantziegon haizeak jotzen duenean, txistu egiten duenean, entzuten da: hamazazpi ume bildu zituen Lurdesek estreinako urte hartan, 79-80 ikasturtean. Ondoko urteetan Kripan, Billar eta Binasperiko zenbait haur ere batu ziren Lantziegon.

Ikasleak bildu ahala, irakasle premia izan zen ikastolan. Lurdesen atzetik heldu zen Maritxu. Ondotik, ikastolako hurrengo bi irakasleak: Enrike Arnaiz eta Nekane Etxenhausia. Geroago, Vega Marañon, Mari Mar Blanco, Alizia Ortiz de Viñaspre, Junkal Garai, Esther Robles...

Ikastola

Enrike Arnaizek hogeitaka urte egin zituen ukondo ukondo Lurdes Arrietarekin. Jakinaren gainean ari da Lurdesi buruz. «Berak kontatuta dakit nik nola etorri zen Azpeititik Lantziegora. Haren lehenengo eguna. Bi lagun etorri omen ziren Renault 4-L batean. Bata, Lurdes, Lantziegora zetorrena; bestea, Maria Jesus Mujika azkoitiarra, Kanpezun andereño ari zena. Irailaren hasiera behar zuen, Lurdesek Kanpezuko jaiak aipatzten zituen eta. Kanpezun geratu, txurrut bat egin eta martxa egin zuen Lurdesek, Marije han utzita. Eta bera bakarrik, Lantziegora. Eta “Nora etorri naiz, ordea?” esaten ziola bere buruari.»

Lurdes Arrieta heldu zeneko, Lantziegoko eskola izandakoa erdi eraitsita zegoenez, ikastolak udaletxe zaharrean izan zuen lehenengo egoitza. Gaur egun hotela deneko eraikina. Teilape berean zeuden garai hartan udaletxea eta anbulatorioa. Bertan alkatetza, bertan mediku eta erizainaren kontsulta... eta bertan ikastola! Lehenagotik, bertan «zinemalekua» bera ere! Kalea estua da eta, jolaslekutzat, kalea ezin erabilita, ondoko gela zuten. Lurdesek: «Jolasgaraia!, goazen jolasera!» esan, eta ondoko gelara joaten omen ziren umeak. Horrela ekin zion Lurdes Arrietak bere bizitzako ibilbide berriari, adin ezberdineko hamazazpi haurrak ikastolara bilduta.



Lantziegoko ikastola, gaur egun

Ikastolako idazkia, oroigarria





Lurdes Arrieta, ikasle taldeekin, 90eko hamarkadan

Ibiliaren hasiera

Enrike Arnaiz Lantziegoko ikastolara lanean heldu zenean Lurdes besterik ez zen ari han. «Beste andereño bat, Mari-txu, joana zen ordurako. Lurdesek 3, 4 eta 5 urteko umeak hartu zituen. Nik, 1., 3. eta 4. mailakoak, denak gela be-rean. Bigarren mailakorik ez zen izan urte hartan, 1983ean. Hemezortzi bat ikasle izango ziren nire gelan. Ikasleak Oiongo ikastolara joan zitezen saiatu zen Rekarte. Han zerbitzu hobeak izango zituztela zioen. “Laborategirik ere ez duzue hemen”, haren arrazoia, behin, eta gurasoaren berehalako erantzuna: “Nahiago dugu eskolako baratza izan, laborategia baino”. Kontua da

ikasleak Lantziegon geratu zirela OHO egiten.»

Euskara Lantziegon guztiz arrotza zeneko garaia da. Arnaizen iduriko, «herrian ez zuten euskararen berririk. Beharbada batzuek izango zuten, bai, udan herrian izaten ziren udatiar euskaldunen bitartez. Esate baterako, “andereño” hitza zeharo estrainio zitzaien eta, Lurdesi, “andereño” esan ordez, “ikurrina” ere esan izan zion baten batek. Beste kasu bat ere bada, bertako irakasleonek artean ezaguna. Neuri gertatu zitzaidan, alaba nagusiarekin anbulatoriora joan nintzenean. Pediatrarekin hizketan eta esan zidan nola bezperan emakume bat joan zitzaion kontsultara, eta

galdetu ziola ea ezagutzen zuen Enrike “Landereño”. Eta pediatriak berak ere uste zuen Landereño nuela deitura. “Landereño” izan nintzen, beraz. 85-86 ikasturte hartan. Kontu serioago bat, adibidez: garai hartan, politika mailan nahiko sesio zegoen PNVkoen eta PSOEkoen artean. Azken hauek euskararen kontra egiten zuten, nahiko gogor gainera. Begitan hartua balute bezala. Haiek kontra, eta esperoko zuten guk erantzutea.



Guk, aldiz, geure lana egin eta aurrera. Eta poliki-poliki ikastola beste eskola bat zela konturatu ziren, euskarak ez ziela hurrei batere kalterik egiten».

Lurdes, berriz, senartzat herriko semea harturik bizi zen ordurako. Horixe zuen alde. «Lurdesek gurasoen babesa eta konfiantza zituen. Eta konplizitatea batez ere. Herrian bertan bizi zen. Herriko denak ezagutzen zituen. Senarrak, haren familiak, haren lagunek... herria ireki zioten. Ikastolan ere, Lurdesek guk baino hobeto jakiten zuen nondik eta nora jo herriaren aurrean. Inork bide bat proposatu eta berak esango zuen: “Ez, hobe hortik ez, ze hau eta hura, eta hortik ez dugu ezer lortuko. Uste dut hobe dugula beste halako egin”. Eta asmatu egiten zuen.» Bertakoa izan zen Lurdes Arrieta hasiera-hasieratik. Behin eta berriro azpimarratzen dute denek hori Lantziegon.



Lurdes Arrietak ikastolan zuzendutako zenbait ikasle talde

Titulazioa

1988 inguruan beste lantegi bat ere izan zuen gure andereñoak: titulazioa. Ordu arte nahi-koak izan zituen «euskara eta haurrentzako maitasuna». Gipuzkoako Ikastolen Elkarreak urratutako bideak irakasle tituluaz jabetzeko aukera eman zion sasoi hartan ikastola lanean ari zen irakasle frankori. Besteak beste, Lurdes Arrietari. Honek, ikastolako lanak bukatu eta asteen bi aldiz hartu autoa eta martxa egiten zuen Gasteiza. Handik, beste andereño batzuekin batera, Eskoriatzara! Ikastaro haie-tan parte hartu zuen Mila Arrizabalaga azkoitiarrak. «Maeztura heldu nintzen, ikas-tolara, 78an. Eskoriatzako ikastaroak astearte eta ostegunetan izaten ziren; asteartean, hiru-retatik zortzietara, eta ostegunetan seietatik hamarretara. Gasteizen, hogeit bat emakume biltzen ginen autobusean, hara joateko!» Lurdesek Gasteizaino baino bide handiago zuen Lantziegora, Arlaban, Gasteiz eta Berne-doko portuak barrena. Toloño mendikatea eder udazken betean, baina beldurgarri neguko hotz-izotzetan. Bestalde, etxean, ume txikia, Itsaso, senar Felixekin...

Titulazioak lan egoera zuzenduta ere, oraindik bazen eginkizunik! Erabaki zail bat baino gehiago hartu behar izan zituen Lantziegoko ikastolak 90eko hamarkadan. Batetik, irakur-keta-idazketak euskaraz egitea, ikastola D eredurantzko bidean jarritz. Bestetik, ikasto-laren publikazio prozesua.

Lehenengoari dagokionez, Rekartek eta Ba-sarasek Lantziegoko ikastola abiatzerakoan ibilitako errezelo eta beldurrei aurre egin behar izan zieten bertako irakasleek. 1979ko hartan ikastolaren eragile izan ziren Rekartek eta Basarasek ez zuten Lantziegoko herria izutu nahi izan. «B ereduak aurkeztu genien, ikasleek erdia euskaraz, erdia gaztelaniaz jardungo zutela esanez. Ez izateko beldurrik. Ikasleek euskaraz jakin zezaten ari ginela ikastolan, eskola ele-biduna zela. Haur haiek hazi eta inoiz Gipuz-koara edo Bizkaira joan behar bazuten euskararen ezagutza gutxieneko bat izan zezaten. Ez zutela gaitasun handirik izango, baina zer edo zer jakin. Horrela jardun genuen Lantziegon eta gainerako herrietan, lekuan lekuko jende kon-tzientziatu eta prestigidunaren laguntzaz.» Gura-soei bihotz ematea zen kontua, beren seme-alabak ikastolara beste inora bidal ez zitzaten.

Koska hori leundu behar izan zuten hamar urte geroago Lantziegoko irakasleek. Orduan, aurreko urteetan gai beraren inguruan Oion eta Bas-tidako batzar petraletako eskarmentuak ain-tzakotzat harturik, Lantziegon batzar nagusiari ez baina haur hezkuntzatik lehenengo mailara igaro behar zuten haurren gurasoei azaldu zieten asmoa. Eta gurasoak konbentzitu zituzten. Urra-tsa egin zuten. Eta eskerrak!, dio Enrike Arnaizek: «Bai, ze publikatu ginenean, D ereduko ikas-tetxea ginenez, hezkuntza ordezkariak irakasle euskaldunak bidali behar izan zizkigun beti. B eredukoak izan bagina, euskaraz ez zekitenak ere bidaliko zizkigun». Eta orduantxe bai ikastola eta euskara hankaz gora Lantziegon.



Lurdes Arrieta eta Felix Compañonen ezteiak. Azpeitia, 1982



Lurdes, Itxaso eta Felix. Lantziego, 1986 inguruan



Compañon Arrieta familia, 1996an

Publifikazioa

Ikastolaren publikazioa dela eta, sare publikoan integratzea erabaki zuen Lantziegok. Eztabaida egin zen eta ikastola publikoaren aldeko hautua egin zuten guraso eta irakasleek. Nabarmen. Aldiz, Bastidako ikastolan boto bakarrak erabaki zuen pribatuaren bidetik jotzea. Hogeitaz baina gehiago egin ditu Nekane Etxenasiak Lantziegoko ikastolan eta bera da irakasle beterano bakarra. Irakasle gaztez eta berriz inguraturik ari da lanean. Bertatik bertara bizi izan zuen prozesua, eta badaki. «Irakasleok ere publikotasuna bultzatu genuen. Txarto egin genuela esango du zenbaitek, baina ez dut uste. Guk —Lurdesek, Enrikek eta hirurok esan nahi dut—, ez genuen sentitzen pribatuaren bidetik aurrera egiteko nahiko indar genuenik. Publikatu eta kezka asko desagertu zitzaizkigun, bai azpiegiturazkoak, bai pedagogiazkoak: pedagogiari intentsitate handiagoz heldu ahal izan genion. Egia da harrezkero izan dugun irakasle aldaketa handiak galga jarri diola gure lanari.»

Rekartek eta Basarasek bestelako iritzia dute. «Publifikazioa ez zen ondo bideratu Lantziegon. Irakasleek errazena egin zuten. Egonkortasuna lehenetsi. Gurasoek ere ez zuten garbi ikusten jakin. Orain ikastola publikoa da, irakasle aldaketa etengabea da Lantziegon eta erreferenteak galtzeko arriskua, berriz, oso handia.»



Nekane Etxenasia, Lantziegoko ikastolako andereño historiko eta erreferente bakarrenetarik gaur egun

Publifikazioa eta gero, beste egiteko bati ekin behar izan zion Lurdes Arrietak: zuzendaritza titulazioa. 1998 inguruan, zuzendarientzako habilitazioa helburu zuen hiru hilabeteko ikastaroa egin zuten Lurdes Arrietak eta Enrike Arnaizek Gasteizen. Jakina izango denez, inork ez du ikastetxeko zuzendari kargua bete nahi izaten. Baina lan hori ere bete beharra dago eta, txarrean, txandaka betetzen dute leku askotan. Lurdesek 1999-2000 eta 2000-01 ikasturteetan bete zuen lan hori. Sasoi hartan aparteko lan kargarik gertatu ez bazen ere, estresak jo zuen. Hilabeteak egin zituen bajaran. Gorputzaren alde bat geratu egiten zitzaiola zioen. Kortisona agindu zion medikuak eta gorputza puztu zitzaion, bera kexatzeraino. Haatik, lanera itzuli zen.

Herria

Mari Karmen Garcia Lurdes heldu zen urte berean hasi zen Lantziegon bizitzen. «Bianan jaioa naiz, Lantziegora 1979an ezkonduarik etorritakoa. Abuztu amaieran heldu nintzen ni eta Lurdes, aldiz, kurtso hasierako. Dena dela, nik esango nuke urte hartan ohi baino beranduago hasi zutela ikasturtea: urri-azaroan edo. Beste jakingarri bat, Lurdesen ondoren, apaiz berria etorri zen. 1979an etorri ginen hirurok.» Gazte ziren bi emakumeak. Hogeita bat urte Lurdesek, hogeit Mari Karmenek. «Erraz egokitu ginen Lantziegon. Berehalaxe egin genuen bat bertako gazteekin. Herri txikia denez, kalera irten eta beti egingo duzu topo baten batekin. Elkar agurtzen hasten zara, gero tabernan tokatzen zara, hitz egiten duzu... Gainera, nire senarra eta Felix —Lurdesen gizona izango zena—, lagun ziren lehenagotik ere. Eta, horrela, lehenengo lagun eta gero adiskide izan ginen. Poliki-poliki, koadrila osatu genuen, harremanak estutu genituen. Lehenbizi, lagunarteko lotura; gero, baita ikastolako ere,

gure ume zaharrena berak ibili zuen eta. Oso irakasle ona zen. Haurrak ikastolara eraman genituen, umeak herrian bertan haztea gauza handia delako. Bestalde, herriko umeek euskara ikasi dute. Hori oso ondo dago. Okerrena, ez dutela euskaraz hitz egiten; alegia, tartean-tartean besterik ez. Baina gustu ematen du euskaraz ari direla entzuten duzunean.»

Lurdesek Lantziegon izan zuen lagunik minena izan zen Mari Karmen. «Hots egingo zidan eta: “Mari Karmen, hartuko al dugu zer edo zer? Lepazintzurreraino nago, hainbeste azterketa zuzentzen!”. Hurrena, neuk hots egingo nion, Logroñora joango ginen erosketak egitera, edo asteburuko irteera asmatuko genuen. Ikastolako kontuak alde batera utzita, betiere.»

Ikastolaz bestera ere jardun zuen Lurdes Arrietak Lantziegon euskararen alde. Anekdotikoa izan liteke. Edo ez. Herrira etorri urtean bertan, ikastola ez ezik, gau-eskola ere abiarazi zuen. Bera zen irakasle. Urtebete iraun zuen haren esperientziak. Bestek hartu zion lekukoa lan horretan.



Lurdes eta Mari Karmen, 1981eko irailean, erromerian



Mari Karmen Garcia, Lurdesen adiskide min, gaur egun

Andereño eta zinegotzi

uskara eta ikastola ardatz izanik ere, Lantziegoko herriarekiko bestelako konpromiso, integrazio eta inplikazio bat ere erakutsi zituen gure andereñoak 2003an: udal hauteskundeetan parte hartu zuen. Nekane Etxenausiak esana da: «Nik uste emakumezkoak nahi zituztela zerrendan. Ez zegoen Lurdesen asmoetan, baina etorri zitzaizkion eta onartu egin zuen». PNVkoak joan zitzaizkion, hautagaitza osatzen ari zirela. Enrike Arnaiz Lantziegon zen, artean. «Ez zuen askorik esan, baina herriagatik, laguntzeagatik egingo zuela esan zigun. Berak, ordea, ez zuen PNVkotzat agertu nahi, independente



Herriko jaietan, zinegotzi lanetan, jokoak antolatzen. 2003

baizik. Izan ere, ez zen PNVkoa. Aita, berriz, EAKoa zuen, eta Lurdesek berak ere joera horixe zuen.»

Andereño eta zinegotzi jardun zuen 2003az gero. Denbora gutxian zenbait aldaketa eragin zituen herrian. Ideia berriak ohi zituela, oso ausarta zela dio Etxenausiak: «Lantziegoko jaietan, adibidez, mokadua eskaintzen dute herriko elkarteek txandaka: batean, mendizale taldea arduratuko da hartaz; bestean, emakume taldea... Eta jendea biltzen da! Bada, udaletxetik etorri zen asmoa, Lurdesengandik. Gauza berri zale zen».

Enrike Arnaizek ere badu oroitzapenik franko. «PPkoak udal agintean egon eta gero izan zen Lurdes zinegotzi. Festa egitaraua erabat erdaraz egiten zuen PPk. Lurdesen garaian, berriz, euskaraz eta gaztelaniaz egin zen. Akordatzen naiz, 1999ko udal hauteskundeetan PNVk alkatetza galdu zuela. PPk irabazi zion. Herriko jaietarako zenbait ekitaldi, ordea, hauteskundeak baino lehen hitzartuta zeuden eta, esaterako, Egan musika-taldea zegoen kontratatuta. Etorri zen Egan, hasi zen kantatzen, eta batzuk kultura zinegotziari joan zitzaizkion, taldea euskaraz kantatzen ari zela eta gaztelaniaz kanta zezala eska ziezaion. Eta, zinegotziak kantariari esan, euskaraz ez kantatzeko, jendeak ez zuela ulertzen eta! Xabier Saldiasak, zer edo zer ahapeka kantatu hurrengo abestia baina, azkenean, eten egin zuen emanaldia, bertan behera utzi! Lurdes zeharo haserretu zen. Eta, are okerrago, zinegotzi hura... ikasle izana genuen!»



Arabar Errioxako Ikastolen Eguna Lantziegon, 1996

Lantziegoko kultura zinegotzia izan zen Lurdes Arrieta. Ikastolarentzako kalterik ez zen etorri handik, onura besterik. Ikastola, adibidez, hizkuntza normalkuntzarako proiektua lantzen ari zen, harremanetan zen udaletxearekin, herrian euskararen presentzia areagotzeko asmotan. Lurdes hesiaren bi aldeetan zangalatraba egoteak hainbat erraztu zien beren egitekoa.

Kale errotulazioa euskaratzea ere gure andereñoaren egitekoa izan zen neurri handi batean. Lurdesen garaian aldatu zuten, bizpahiru urtean. Haatik, bertan iraute du oraindik diktadura beltzeko oroitarriren batek edo bestek. Calvo Sotelo izena zeraman kalea berriz bataiatu arren hantxe da plaka. Harrizkoa izan, etxe partikular bati josita egon eta kendu ezin izan zutena!

Korrika, Lantziegon



Etxe partikularrean eta harrian egina izan! Nahita ere ezin kendu Calvo Soteloren oroimenezko inskripzioa

Lurdes gustura ibili zen udaletxean, eta hainbat denbora igarotzen zuen alkatearekin ere, honetaz eta hartaz, kulturaz eta azpiegituraz, festa egitarauaz eta kale errotulazioaz.

Gure andereñoa zinegotzi izan zen garaiko alkate Alfonso Gonzalezen esana dugu hura definitzeko bide zuzenena. «Saltsa guztietan ibiltzen zen beti.»

Etxea

Felix Compañonek ez zekien euskaraz Lurdes Lantziegora heldu zen garaian, 1979ko udazkenean. Andereño iritsi berriak helduentzako gau-eskolak abiatu eta bertan eman zuen izena Lantziegoko seme Felixek. «Egia esan, ez dakit nola bururatu zitzaion asmoa ere. Baina jendetza bildu zen. Hogei bat lagun edo bai! Bi talde, behintzat, egin zirela badakit. Pare bat urtean jardun eta utzi egin zuen Lurdesek. Eta ez dakit nork heldu zion lantegi hari, AEK-k edo. Gazte ginen eta euskara ikasteko motibatuta geunden, gogo handiz ekin genion. Lurdes, berriz, gau-eskola haien bidez sartu zen herriko giroan, bat egin zuen eta ikasten ari ginenokin. Bizpahirurekin, behintzat.» Nahikoa izan ziren. Felix eta Lurdes elkarrengana bildu, adiskidetasuna estutu eta nobio zebiltzan 80ko aste santua orduko. «Horrela askoz errazago integratu zen herriko bizimodu. Uda hartan ere, Azpeitira joan beharrean Lantziegon geratu zen Lurdes, nirekin.



Kale errotulazioa ele bitan. Lurdesen zinegotzi aldia egina

Lagun gehiagorekin irteten hasi ginen eta, harrezkero, bere lagunak egin zituen herrian: Mari Karmen, Mari Tere eta beste.»

Lurdes Arrieta, ikastolako andereño egunez, euskara irakasle gauez. «Eskolan ibili nintzen bi urte haietan asko ikasi nuen. *Jalgi Hadi* zen metodoa. Oraindik akordatzten naiz, lehe-



Felix Compañon



Felix, pilotalekuan

nengo ikasgai hartaz! Baina Lurdes eta biok bata bestearekin irteten hasi ginenean, kito gure euskara! Ez zidan gehiago irakatsi! Gaztelaniaz hitz egiten zidan.» 1982ko irailean ezkondu ziren Lurdes eta Felix. Bi seme-alaba izan zituzten, Itsaso eta Unai, eta haiek koskor-tu zitzaizkienean atzera gau-eskolara hasi zen gizona. «Sei urtez jardun nuen ikasten, bost Lantziegon, eta bat Oionen. Ez dut ikasiaren damurik. Hemen, udazken-neguetan dugu guk denbora gehien, uzta igaro ondoren. Aitzitik, estu gara udaberrian, orduantxe hasten da eta mahastietako lanik handiena. Zenbat eta eguna luzeago, orduan eta lan handiago egin behar izaten dugu!»

Ikastolak alderdi politiko guztietako gurasoen seme-alabak bildu ditu Lantziegon. Oiongo herri ikastetxera joan diren haur bakanak izan ezik. «Hemen, hogeitaz edo hogei bost urtetik



Pilotari gazte txapelduna du semea, Unai



Unai Compañon Arrieta (ezkerretik bigarrena)

beherako denek dakite euskaraz. Izatekotan, haiek daukate euskara zaletasun pixka bat. Adibidez, nahiagoko dute Gasteizko giroa Logroñokoa baino. Han ere euskal giroa hala-moduzkoa bada ere!» Majo aldatu da giroa joan deneko hogeita hamar urtean Felixen begietan. «Ikurrina galarazita zegoen garaian, Txatoren tabernaren parean beti zegoen ikurrin bat, txiki-txikia. Etortzen ziren guardia zibilek, eta ez zuten ikusten. Orain ez dago motibaziorik. Hoztu egin da jendea.»

Senarrak esatera, Lurdes oso egokia eta iaioa zen haurrekin, hala etxean seme-alabekin nola ikastolako ikasleekin. Bestalde, gogoan ditu

Lurdesek bi urtean Eskoriatzara egin zituen joan-etorriak, irakasle tituluaz jabetzera. «As-tean bitan joaten zen. Ordurako Itsaso jaioa zen. Arratsaldean abiatu eta gauerdian heldu. Horrela izan zen bi urtez. Hura Eskoriatzara bueltaka zebilen bitartean, neu geratzen nintzen gure alabarekin. Baina Lurdes oso gogorra zen, bi urte horretan ez zen behin ere kexatu!»

Lurdesen zaletasunetan, bizpahiru nabarmen-tzeko modukoak: bata, oporretan kanpora joateko tirria. «Mediterraneo aldean, Norvegian, Turkian, Tunisian eta beste zenbait lekutan ibili ginen. Oso zen kanpoan ibili zalea. Baita argazki zalea ere. Paisaiak eta familia erretratu



Ikastola irtenaldiak



Azpeitiko koadrila Lantziegon, ardotara etorriak, Felix eta Lurdeseekin



Lurdes bidaia zale. Lanzaroteko Arrietan, Norvegian eta Oltzarten



Lurdesek Lantziegon argazki-lehiaketara aurkeztutako argazkietako batzuk. Lehen saria ere irabazi zuen

mordoa daukagu etxeko albumetan. Argazkia dela eta, aita zuen horretan amorratua. Joxe Marik berak errebelatzen zituen argazkiak, asko zekien fotografiaz. Lurdesek argazkiren bat gaizki egin eta ernegatu egiten zitzaion aita!» Gainera, pilota zalea. Hainbat partida ikusi zituen Lurdesek bere bizian. Gaur egun, pilotari gazte ari da Felixen eta Lurdes zenaren seme Unai, «Konpa» izenarekin... Badu gatzik, eta nork jakin noraino helduko den.

Lantziegon bertan sortua da Felix Compañon. Bertan ditu erro eta zainak. Lurdesen bitartez ezagutu zuen Azpeitia. «Bi herrien arteko kontrastea gorabehera, Lurdes erraz egokitu

zen Lantziegon. Behin ere ez zuen traslado asmorik izan.» Asko dira Oion, Bastida edo Lapuebla de Labarkako ikastoletara etorritako irakasleak, urte bat egin eta traslado eske direnak. Lurdesek ez zuen inorako asmorik izan, egundo. «Bertakoa egin zen Lantziegon, eta kito! Gerora ere, ez ginen Azpeitira askorik joaten. Haren gurasoak bizi zirela, zertxobait gehiago, baina urtean hiruzpalau aldiz besterik ez: gabonetan, San Inaziotan, inauterietan eta San Sebastianetan. Gainerakoan, Lantziegon beti, edo gehienez.» Azpeitiarra Lantziegon bertakotu zen, ez da besterik.



Istripua gertatu zeneko lekuan, oroigarria



Patua

2005eko apirilaren 15ean, haizeterik zakarrenak piztutako sua bezala zabaldu zen albistea Euskal Herrian. Istripua izana zen goizaldean A-124 errepidean. Elkar jo zuten bi ibilgailuk, Nissan Primera autoak eta Mercedes Benz furgonetak. Hiru lagun hil ziren; lau lagun, larri zauritu. Lantziegoko ikastolari lotutako andereñoak ziren hildakoak: Lurdes Arrieta, Adela Pardilla zornotzarra eta Oihana Torreal dai arrasa-tearra...

Eguerdia orduko, ezohiko udalbatzarra egin zuen Lantziegoko Udalak. Bertan, hiru eguneko dolua deitu eta ikastolari Lurdes Arrieta izena jartzea erabaki zuten, oroimenez.



25. urteurreneko afalondoa

2004. Lagunarteko afaria Lantziegon. Adela, Enrike, Eider, Felix, Lurdes, Bego eta Nekane ageri dira argazkian. Istripuan hil ziren Adela eta Lurdes: Larri zauritu, berriz, Eider eta Bego

Mina barreiatu zen...

Egun, era askotako oroitzapen biziak dakartza haizeak...

Nekane Etxenausiaren baitan Lurdes alaiak irauten du, positiboak, emakume animosoak, ideia berezi eta alditan xelebreak zituenak. «Autentikoa zen Lurdes!» Enrike Arnaizek zehaztu digu Lurdesen ideia horietako bat: «Lantziegon danborrada egiten da San Isidro egunez, eta San Sebastian eta San Prudentzio musikak jotzen dira. Bada, hori Lurdesek asmatu zuen, seguru. Azpeiti mina izango zuela uste dut nik».

Mari Carmen Garciak adiskidea bera darama gorderik. «Ez dago egunik berarekin akordatzeko ez naizenik. Elkarrekin geunden egunero. Nire parte bat eraman du berak, eta beraren parte bat daukat nik. Zaila da beste pertsona bat antzekoa inguratzea. Ni haren makulua nintzen, eta bera nirea. Berrogeita zazpi urte ditut, eta ez dut haren modukorik beste bat aurkituko, bizian.»

Jose Mari Rekarteren eta Ramon Basarasen bihotz eritua da mintzo: «Gauzak egiten saiatzen zara, eta... erabat sendotuta zegoen proiektu bat ihesi



doakizula iruditzen zaizu. Lantziegon, Lurdesek atera zituen babak eltzetik. Hura zen erreferentea, Enrike, Nekane eta beste batzuekin batera».

Lurdes Arrietaren lana ez da alferretan igaro. Batere girorik ez zegoen eremu gorrian hogeita bost urte baino gehiago dituen ikastola dute. Herri euskalduna ez bada ere, hogeit bat urtez beherako denek dakite euskaraz Lantziegon. Ez da lehengo konturik. Ikasleetako batzuek euskarari eusten asmatzen dute oraindik. Gaur egun, ikastolan ikasle ibilitakoen seme-alabak hartzen ari da Lantziegoko ikastola. Bat edo beste, irakasle ari da inguruko ikastoletan. Herriko zenbait gaztek kultur talde bat ere osatua dute...



Heriotza oroigarria

Hutsunea

Lurdes Arrieta oroitzapen bizia da Lantziegon. Haren senar Felixek zoria ekarri digu hizpidera, emaztearen heriotza esplikatu guran. «Patua zer den. Urtebetetze afariak egiteko ohitura genuen. Istripua gertatu zen sasoian Enrikeren [Arnaiz] urtebetetzea zen. Logroñon bizi zen, ordurako. Apirilaren 3koa da eta aste hartan bertan ziren afaltzekoak. Baina batek ezin zuela eta atzeratu egin zuten. Hilaren 14an egin zuten. Lurdes, joan ez joan ibili eta gero, joan egin zen azkenean. Afalondoan, Lantziego aldera abiatu zirenean, baten batek jertsea tabernaren batean utzi zuela eta atzera Logroñora itzuli ziren jertsea jasotzera. Orduan, bi lagunek-edo elkarri lekua aldatu zioten auto barruan. Lekuak aldatu, eta istripua gertatu zenean, bata onik irten zen, eta bestea hil. Esan nahi dut, jertsea jasotzera itzuli izan ez balira, ez zen istripurik gertatuko. Eta afaria bera ere, zegokion astean egin izan balute, ezer ez. Horregatik diot nik patua izan zela. Nork bere lekua eta garaia ditu mundu honetan. Istripua eta gero, psikologoak esan zidana daukat gogoan. Trenean omen goaz denok. Joan goazela, esaten dizute: «Hemen jaitsi behar duzu zuk». «Ez, ez, ni aurrerago noa». Orduan, albotik, agure zaharrak: «Jaitsiko naiz ni beraren ordeaz». «Ez, ez, zu gelditu hor, zuk aurreraxeago jaitsi behar duzu». Eta, sinistu gero, horrela da.» Felix Compañonek era horretara bizi du emazte zenaren hutsunea. «Irakasle ona izan zen guretzat gau-eskolan, eta haurrentzat ere bikaina izan zen.»

Harrezkero, ezin betezko hutsunea da Lantziegoko herrian, ikastolan, etxean, eta ezagutu zutenen bihotzean.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiten jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Arrieta Azpiazu familiari
- Compañon Arrieta familiari
- Itsaso Arrietari
- Lantziegoko ikastolako irakasleei
- Nekane Etxenausiari
- Enrike Arnaizi
- Jose Mari Rekarteri
- Ramon Basarasi
- Mila Arrizabalagari
- Mari Karmen Garciari
- eta izendatu gabe geratu diren laguntzaile guztiei

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko iraila

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz eta Zaldi Ero

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2459-0 (Lan osoarena)
978-84-457-2601-3

L.G.: BI - 2586-07

Egilea:

MIEL A. ELUSTONDO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística